

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

6103

AGINDUA, 2018ko azaroaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorrituz, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emando die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2018ko azaroaren 27an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 30a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2018ko abenduaren 13a, osteguna

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Aldazabal Merino, Andrea	620/18/D	Herri kirolak	Kirolaria
Aranburu Amorena, Juan Jose	626/18/D	Tiroa	Kirolaria
Aranzolo Ajuria, Goizalde	595/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Ariztimuño Kopez, Itziar	636/18/D	Saskibaloia	Kirolaria
Arocena Zubizarreta, Lierni	621/18/D	Herri kirolak	Kirolaria
Arrospide Garro, Iraitz	663/18/D	Atletismoa	Kirolaria
Barrutieta Barrenetxea, Uribarri	645/18/D	Errugbia	Kirolaria
Camino Yarza, Irene	623/18/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Canales Bilbao, Leticia	629/18/D	Surfa	Kirolaria
Criere Martín, Andy	614/18/D	Surfa	Kirolaria
Carretero Cruz, Eneko	637/18/D	Mendia	Kirolaria
Erbina Araña, Amaia	638/18/D	Errugbia	Kirolaria
Erostarbe Geiser, Nadia	640/18/D	Surfa	Kirolaria
García Injelmo, Adrian	653/18/D	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Kirolaria
García Injelmo, Alejandro	652/18/D	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Kirolaria
García Zabalegui, Nerea	628/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gebre Aunoon, Trihas	639/18/D	Atletismoa	Kirolaria
Goñi De Virgala, Alex	630/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gorrotxategi Susperregi, Aitor	632/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ibarburu Altuna, Enara	619/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Larrañaga Ayerbe, Beñat	618/18/D	Kirol Egokitua- Gorren Saskibaloia	Kirolaria
Larrañaga Jaio, Aitor	660/18/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Lazkano Zuriarrain, Miren	635/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Lizeaga Mitxelena, Jokin	662/18/D	Mendia	Kirolaria
Llopis Sanz, Iñigo	657/18/D	Kirol Egokitua- Igeriketa	Kirolaria
Loidi Etxaniz, June	625/18/D	Eskubaloia	Kirolaria
Martín Torre, Borja	616/18/D	Golfa	Kirolaria
Munguira Ortiz de Cosca, Itxaso	646/18/D	Kirol Egokitua- Atletismoa	Kirolaria
Olazabal Sanchez, Klara	642/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ortega Guerra, Ainhoa	564/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Osa Irureta, Irati	633/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Leire	648/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Oihane	647/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Peña Arriola, Iñigo	627/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Perez Mesonero, Virginia	659/18/D	Mendia	Kirolaria
Perez Sudupe, Martín	650/18/D	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Kirolaria
Ramos Perdomo, David	651/18/D	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Kirolaria
Sanchez Ortun, Garazi	641/18/D	Surfa	Kirolaria
Unanue Zabala, Mikel	649/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Val Manzanedo, Victor	654/18/D	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Kirolaria
Veiz Labrador, Sergio	655/18/D	Deportes de invierno	Kirolaria

2018ko abenduaren 13a, osteguna

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Ugarte Beitia, Gorane	661/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Cabezuelo Castillo, Pablo	102/18/T	Surfa	Teknikaria
Iturricastillo Urteaga, Aitor	100/18/T	Kirol Egokitua-Aulkidun Saskibaloia	Teknikaria
Martínez Gómez, Diego	97/18/T	Surfa	Teknikaria
Zabala Artetxe, Ander	98/18/T	Arrauna	Teknikaria